

ARRASATEKO EH BILDUK INGURUMEN ARLOKO 3 PROPOSAMEN AURKEZTU DITU UDALEAN

Arrasateko EH BILDUK ingurumen arloa lehentasun arlotzat du. Arrasateko ekosistema ezberdinen zaintza eta leheneratzeak fauna eta florari ez ezik arrasatear guztioi egiten digu mesede. Norabide honetan, hiru ekimen aurkeztu ditugu Arrasateko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen sailean.

Batetik, urtean zehar egoten diren industria isuri kutsatzaileen txostena osatu eta publiko egiteko eskatu diogu Udalari posible duen heinean. Nahiz eta azken urteotan industriak aurrerapausoak eman isuriaren kontrolean, oraindik airera, uretara edota kontrolatu gabeko hondakinek naturari kalte egiten diete. Isuri hauen kudeaketa administrazio ezberdinen eskuduntza izan arren, uste dugu Udalak egin eta aurkez dezakeela urteko txosten bat arrasatearrek informazio osatua izan dezaten gaiaren inguruan.

Bigarrenik, Arrasaten jada landatua den eukaliptoaren inguruan sentsibilizazio eta kontzientziazio lana egitea lur jabeekin. EHUko ikerlariak frogatu dute eukalipto kaltegarria dela mendiko uren kalitatearentzat eta Portugalgo gobernuak berriki debekatu du eukalipto gehiago landatzea suteen arloan duen eragin txarragatik. Behin hasita, ondo legoke ere sentsibilizazio ariketa hau bertako zuhaitzen landaketaren sustapenarekin lagundua balitz.

Amaitzeko, Arrasateko hainbat eragilek Meatzerreka auzoko San Balerio lursailean eginiko lana zabaldu eta ospatzeko jardunaldia antolatzea proposatu dugu. Ingurumen kontserbazio, herriko ondare natural eta historikoa ezagutzera emateko, naturguneak herritarrei gerturatzeko eta pertsonen garapen emozionalean esku bat botatzeko egitasmoa izan zen Besaide, Naturtzaindia eta Sustraibarra eragileek eginikoa Udalaren eta boluntario ugariaren laguntzaz. Ona litzake Udalak ekimena hartuko balu gainontzeko herritarrei lana erakutsi eta eginikoa ospatzeko.